



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko ekainaren 27an

55 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

- Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena. proposamenaren defentsaz arduratuko diren foru parlamentariak izendatzeko arauak (3. or.).
- Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamena. proposamenaren defentsaz arduratuko diren foru parlamentariak izendatzeko arauak (4. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesba ematen dio itunpeko irakaskuntzako langileen lan baldintzak irakaskuntza publikoko langileen lan baldintzekin parekatzeari, Nafarroako Demokratik Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejónko Dos de Mayo ikastetxe publikoa zabaltzeko obrak has ditzan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Endarlatsa-Bera errepide-tarteko obrak egin ditzan, Foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak aurkeztua (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publiko, erakunde autonomo eta bestelako enteen kasu ezberdinei buruzko erreferentzia marko bat prestatuz, Nafarroako Demokratik Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da aldi baterako lan enpresak deuseztatuz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (12. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Urte jakin batzuetan udal, kontzeju eta mankomunitateei eginiko transferentzia arruntetako eta kapital transferentzietako diru-zenbatekoei buruzko galdera, foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak egin (14. or.).

- N-1 autobiairen irteera batean, Olazti parean, gertaturiko istripuei buruzko galdera, foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak egin [\(14. or.\)](#).
- Lurraldearen antolamendurako araei buruzko galdera. Ahozko galdera bihurtua [\(15. or.\)](#).

**G SAILA:**

**Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren ekonomi eta finantza erregelamendua [\(16. or.\)](#).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa. Izendapena [\(22. or.\)](#).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena**

### *PROPOSAMENAREN DEFENTSAZ ARDURATUKO DIREN FORU PARLAMENTARIAK IZENDATZEKO ARAUAK*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Batzordeari entzun ondoren, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**Lehendabizikoa.**- Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamenaren defentsaz arduratuko diren foru parlamentariak izendatzeko arauak onestea. Lege proposamen hori Parlamentuan tramitatzen ari da Diputatuen Kongresura igortzeko, Konstituzioaren 87. artikuluan xedatutakoaren babesean.

1. Zigiluetan eta beste hainbat posta-gaitan Estatuko hizkuntzak erabiltzeari buruzko Lege proposamena, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 204. artikuluan ezarritakoari jarraikiz onetsi zuena, hiru foru parlamentariak defendituko dute Diputatuen Kongresuan. Horiek izendatzeko prozedura hauze izanen da:

a) Izendapena eginen da Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran hartutako azken Erabakiaren aurkako botoa eman ez zuten foru parlamentarien artean soilik.

b) Izendatzeko proposamena, Lege Proposamenaren defentsa egiteaz arduratu beharko diren

hiru foru parlamentarien izenekin, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eginen du, Eledunen Batzorrarekin ados, eta legegintzako ekimena onetsi ondotik deitzen den lehendabiziko Osoko Bilkurara eramanen da, honek proposamena, bere osotasunean, onetsi dezan.

c) Erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Diputatuen Kongresuko Mahaiari jakinaraziko zaio.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izendatutako foru parlamentariari izendapen-egiaztagiriak emanen dizkie.

3. Diputatuen Kongresuak lege proposamena aintzat hartzeko tramitea amaiturik, izendatutako foru parlamentariak beraien kudeaketaren berri eman beharko dute ondotik egiten den lehendabiziko Osoko Bilkuran.

Bilkura horretan, foru parlamentariak mintzatu ondoren Parlamentuko talde bakoitzeko ordezkari batek hitz egin ahal izanen du.

**Bigarrena.**- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

## Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamena

### PROPOSAMENAREN DEFENTSAZ ARDURATUKO DIREN FORU PARLAMENTARIAK IZENDATZEKO ARAUAK

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Batzordeari entzun ondoren, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**Lehendabizikoa.-** Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamenaren defentsaz arduratuko diren foru parlamentariak izendatzeko arauak onestea. Lege proposamen hori Parlamentuan tramitatzen ari da Diputatuen Kongresura igortzeko, Konstituzioaren 87. artikuluan xedatutakoaren babesean.

1. Farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Lege proposamena, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 204. artikuluan ezarritakoari jarraikiz onetsi zuena, hiru foru parlamentariak defendituko dute Diputatuen Kongresuan. Horiek izendatzeko prozedura hauxe izanen da:

a) Izendapena eginen da Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran hartutako azken Erabakiaren aurkako botoa eman ez zuten foru parlamentarien artean soilik.

b) Izendatzeko proposamena, Lege Proposamenaren defentsa egiteaz arduratu beharko diren

hiru foru parlamentarien izenekin, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eginen du, Eledunen Batzorrarekin ados, eta legegintzako ekimena onetsi ondotik deitzen den lehendabiziko Osoko Bilkurara eramanen da, honek proposamena, bere osotasunean, onets dezan.

c) Erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Diputatuen Kongresuko Mahaiari jakinaraziko zaio.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izendatutako foru parlamentarietara izendapen-egiaztagiriak emanen dizkie.

3. Diputatuen Kongresuak lege proposamena aintzat hartzeko tramitea amaiturik, izendatutako foru parlamentarietara beraien kudeaketaren berri eman beharko dute ondotik egiten den lehendabiziko Osoko Bilkuran.

Bilkura horretan, foru parlamentariak mintzatu ondoren Parlamentuko talde bakoitzeko ordezkari batek hitz egin ahal izanen du.

**Bigarrena.-** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio itunpeko irakaskuntzako langileen lan baldintzak irakaskuntza publiko langileen lan baldintzekin parekatzeari**

*NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa ematen dio itunpeko irakaskuntzako langileen lan baldintzak irakaskuntza publiko langileen lan baldintzekin parekatzeari".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**MOZIOAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 192. artikulua eta hurrengoek xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Parlamentuko Mahaiari hurrengo Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Nafarroako ikastetxe itunduetako irakasleek eta irakasle ez diren langileek beren ezinegona adierazi dute berriki urteak eman dituztelako lan arloko aldarrikapenak egiten eta Foru Administrazioak sistematikoki ezetsi izan dituelako.

Esate baterako, ikasturte honetan, otsailaren 29tik martxoaren 14ra bitartean bi greba-egun egin zituzten, eta sektore horretako langile gehienek haien alde egin zuten. Aparteko ekintza batzuk izan baziren ere -sektore horrek ez baitu

maiz jotzen horrelako neurrietara-, egia da Administrazioak entzungor egin diela urte askotan era baketsuan eta gizalegez, ez gurasoei ez ikasleei arazorik sortu gabe, urtetan lan hobekuntzak eskatzeko aldarrikapenei, eta halako neurriak hartzera behartuta sentitu zirela. Arrakasta handia izan zuten aipatu neurriek.

Ohikoa denez, Foru Administrazioak ez du konponbiderik aurkeztu egoera aldatzeko; hori dela eta, langile horien ezinegona gero eta handiagoa da.

Langile horiek behin eta berriz egin dituzten aldarrikapenak ez dira gauza berria Nafarroako Parlamentuarentzat; izan ere, organo legegilea den aldetik, ongi ezagutzen du hezkuntza arloan indarra duen legedia: LODE, LOPEGCE, LOGSE... Hori dela eta, ongi ezagut ditzake Foru Administrazioak arau horiek betetzen ez dituen kasuak. Estatuaren oinarriko lege horiek itunpeko irakaskuntzako langileen betebeharreko arauak ezezik, lana hobeki egiteko Foru Administrazioak langileekiko dituen betebeharrak batzuk ere ezartzen dituzte, baina Administrazioa ez da horiek betetzen ari.

Hona haietako batzuk:

1. Ordainsarien analogia

LODE legearen 49.4 artikulua ondokoa dio irakasleei buruz: "irakasleen lansarietako pixkanaka joko dute kasuan kasuko mailetako Estatuko irakasleek dauzkaten lansarietako parekatzera".

Irakasle lanetan aritzen ez diren langileei dagokienez, Hezkuntza itunei buruzko oinarriko arauen erregelamenduaren 13.b) artikulua ondokoa dio: "beste gastu batzuetarako -administrazio eta zerbitzuetako langileenak, mantenimendu eta kontserbazioko ohiko gastuak eta inbertsio errealean birjarpeneko gastuak barne- jarritako zenbatekoak, kapital propioaren ez amortizazioak

ez interesak kontatu gabe. Zenbateko horiek ikastetxe publikoetan aplikatzen direnen antzeko irizpideez finkatuko dira”.

1986an, Hezkuntza Ministerioak eta sindikatuek akordio bat sinatu zuten. Haren arabera, ikastetxe itunduetako irakasleen lansariak % 95 homologatuko ziren irakaskuntza publikoko irakasleen soldatekin, eta bost urteko epea ezarriko

zen homologazio hori erdiesteko. Foru Administrazioak ez zuen akordio hori bere egin; beraz, homologazioaren erreferentzia % 100 da Nafarroan. Hala eta guztiz ere, gure komunitatean, oraindik ere, homologazioa ez da % 87ra iristen haur eta lehen hezkuntzan; ez du % 84 gainditzen bigarren hezkuntzan; eta ez da % 80ra iristen irakasleen lanetan aritzen ez diren langileen kasu bakar batean ere:

Irakaskuntza publikoko haur hezkuntzako eta DBHko lehen zikloko irakasleak: 3.706.682	Irakaskuntza pribatu itunduko haur hezkuntzako eta DBHko lehen zikloko irakasleak: 3.224.129	Aldea: -482.553	Homologazioa: % 86,98
Irakaskuntza publikoko DBHko bigarren zikloko eta batxilergoko irakasleak: 4.389.280	Irakaskuntza pribatu itunduko DBHko bigarren zikloko eta batxilergoko irakasleak: 3.682.655	Aldea: -706.625	Homologazioa: % 83,90
Irakaskuntza publikoko administrari laguntzailea (D maila): 2.358.104	Irakaskuntza pribatu itunduko administrari laguntzailea (D maila): 1.772.000	Aldea: -636.104	Homologazioa: % 73,02
Irakaskuntza publikoko mantenimendu eta garbiketako langileak (E maila): 2.160.074	Irakaskuntza pribatu itunduko mantenimendu eta garbiketako langileak (E maila): 1.677.012	Aldea: -483.062	Homologazioa: % 77,63

## 2. Orduategien analogia

Antzeko irizpideei jarraituz, logikoa da irakaskuntza pribatu itunduko irakasleen lanaldia, ahal den guztian, ikastetxe publikoetako eskola-orduekin parekatzea, irakaskuntzako maila guztietan eta era guztietako ikastetxeetan ahal den eta kalitate handiena erdiesteko. Irizpide hori, neurri handi batean, ikastetxean dagoen irakaslea/ikas-taldeak ratioaren menpe dago.

Ikastetxe itunduetako irakasleek eskatzen dute eskola-ordu gutxiago ematea lege berriek eskatzen dituzten bestelako irakaskuntza-jarduera horietarako denbora gehiago izateko. Hona horietako batzuk: eskolak prestatzea eta lanak zuzentzea; banakako hezkuntzarako dibertsifikazio curricularra; tutoretza eta orientazio lanak; ikasleei eta gurasoei banakako laguntza ematea; ikasmaila, departamentu edo atal berean ari diren lankideekin lanak eta programazioak koordinatzea; urteko programazioak eta txostenak eta bestelako bulego lanak egitea; eguneratzea eta birziklatzea.

Irakasleek, ikasgelan asteko 25 orduetan daudenez, ia ezinezkoa dute Administrazioak eskatzen dituen bestelako lan horiek egitea; eskola orduak gutxituz gero, oro har, irakaskuntzaren kalitatea handituko litzateke, eta irakasleek denbora gehiago edukiko lukete eskola-lanak prestatzeko.

Une honetan, Foru Administrazioak ikasgelan 25 ordu ematea eskatzen die irakaskuntza publikoko irakasleei (haur eta lehen hezkuntzan), ikastetxe itunduetako irakasleei eskatzen zaien ordu kopuru bera. Hala eta guztiz ere, irakaslea/ikasgela ratio handiagoek eta jolasorduak ordu horietan sartzeak bidea ematen dute irakasleek irakaskuntza publikorako dedikazio handiagoa izan dezaten; izan ere, eskola-orduetan beste irakasle batzuen laguntza dutenez, denbora gehiago eman dezakete bestelako zeregin batzuk hobeki prestatzeko.

Bigarren hezkuntzako irakasleentzat (DBH, Batxilergoa, LH), Foru Administrazioak 18 eskola ordu aurreikusten ditu irakaskuntza publikoan; ikastetxe itunduetan, berriz, 25 eskola ordu dira.

Gainera, kontuan hartu behar da ikasgai batzuk asteko hiru ordutan irakasten direla; beraz, irakasleak ikasgelan 25 ordu emanen baditu, ordu horiek guztiak betetzeko ikasmaita ezberdinetan aritu behar da. Horrek berekin dakar 200 ikasle baino gehiagoren ardura beren gain hartu behar izatea.

Ikastetxe itunduetako irakasle ez diren langileentzat, Foru Administrazioako langile funtzionarioek jada onartuta duen irizpidea ezarri beharko da, hau da, asteko 35 orduko lanaldia izateko bidean jarri, egun ikastetxe itunduetako irakasle ez diren langileek duten 40 orduko lanaldiaren ordez.

### 3. Hitzarmen autonomikoa

Ikastetxe itunduetako langileak funtzionarioak ez direnez –lan kontratu bat baitute, enpresa pribatuetan bezala–, haien lan baldintzak lanaldiaren, baimenen, erretiroen, gizarte hobekuntzen, eskubide sindikalaren, oporren, zehapenen eta abarren arloetan, Estatu osorako (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Katalunia alde batera utzita) hitzarmen orokor baten bitartez araututa daude.

Estatuko hitzarmen horrek lehenbiziko artikuluan xedatu zuen “Espainiako Estatu lurralde guztietan dela aplikatzekoa. Hala eta guztiz ere, eskumen eskusiboak dituzten edo eskumen osoak transferituta dituzten autonomia erkidegoen kasuan, lan hitzarmen kolektiboak negoziatu ahal izanen dira lurralde eremu horietan aplikatzeko. Horretarako, beharrezkoa izanen da patronalaren eta sindikatuen arteko akordioa izatea, biak baitira negoziazio eremuetan zilegitasuna dutenak, beren ordezkarietako gehiengo lortzeko. Kasu horretan, estatu mailako hitzarmena ordezkari zuzenbide xedatzailea izanen da autonomia mailan negoziatu ez diren arloei dagokienez.

Nafarroa Foru Komunitate bat denez eta bere eskubide historikoak Konstituzioak aitorturik eta babesturik daudenez –horietako bat irakaskuntza-araubideari dagokiona da–, argi daude hitzarmen propio bat egotea bideratzen duten berezitasun ekonomiko eta sozialak: tributazio ezberdina, itunpeko hezkuntza maila gehiago, gainerako erkidegoetan baino ikasle gehiago irakaskuntza itunduan eta abar. Hala eta guztiz ere, itunpeko irakaskuntzako langileak Madrilen sinatzen den hitzarmen baten pean daude, eta hitzarmen horrek ez du jasotzen gure komunitateko hezkuntzaren errealitatea; beraz, sektore horretako lan

baldintzak ez datoz bat Nafarroako egoera errearekin.

Hori dela eta, beharrezkoa da Foru Administrazioak negoziazioa onartu eta hitzarmen autonomiko bat sinatzea, Nafarroan dauden lan baldintza propioak jasoz, bestelako lan sektore askotan egiten den bezala.

Kontua ez da itunpeko irakaskuntzako langileak funtzionarioen pare jartzea, baizik eta ahal den guztian itunpeko hezkuntzako langileen lan baldintzak irakaskuntza publikokoekin berdintzea (lan sarietan, ordutegietan eta hitzarmen autonomikoari dagokionez); izan ere, nabarmenak dira bi kolektibo horietako lansarietan eta lan baldintzetan dauden ezberdintasunak. Hala eginez gero, indarreko legeak betetzeko egoera hobean egonen gara.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu Biltzarreko Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

#### Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak bere babes ematen die hezkuntza itunduko langileek eginiko eskariei, itunpeko irakaskuntzako langileen lan baldintzak irakaskuntza publikoko irakasleek dauzkatenekin homologatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du itunpeko irakaskuntzako ordezkari diren sindikatuekin behar den akordioa erdietsi dezan, ondoko alderdiak bilduz, betiere:

a.- Ikastetxe itunduetako irakasleak eta irakasleak ez diren langileen lansarietan homologazioa lortzea, foru administrazioako irakasleak eta irakasleak ez diren lansarien % 95era iristeko, kasuan kasuko lansarien maila ezberdinetan.

b.- Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHko lehen zikloan 25 eskola orduko presentzia iristerainoko ordutegien homologazioa, irakaslea/ikastaldea ratioak handituz eta jolasorduek sartuz; 18 klase-ordu DBHko, batxilergoko eta lanbide moduluak bigarren zikloko mailatan.

c.- Hitzarmen autonomiko bat egitea Foru Komunitatearen esparruan ari diren ikastetxe itunduen sareko langileentzat, Nafarroako hezkuntzaren errealitatea aintzat hartuz.

Iruñean, 2000ko ekainaren 9an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejóngo Dos de Mayo ikastetxe publikoa zabaltzeko obrak has ditzan**

*IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Castejóngo Dos de Mayo ikastetxe publikoa zabaltzeko obrak has ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du presaz Biltzarreko Osoko Bilkurak eztabaidatu eta bozka dezan.

1989an, Nafarroako Hezkuntza eta Kultura Ministerioko lurralde zuzendaritzak ezarri zuen Castejónen DBHko ikastetxe bat egonen zela Castejón, Cadreita, Arguedas eta Valtierra herrietarako. Nafarroako eskola mapa egiterakoan, Castejón kanpo utzi zuten, eta horretarako arrazoi bakarra izan zen garai hartan ikastetxea non jarri alkateen artean eztabaida handia zegoela. Castejóngo eskola komunitateak, erabaki horrekin ados ez baitzegoen, bere ahaleginean jarraitu zuen, gutxienez DBHko lehen zikloa eduki ahal izateko. Horretarako baimena 1997ko ekainean eman zitzaion, egoera berezi horri erantzuna emateko.

Egoera berezi horiek direla eta, DBHko lehen zikloak mantendu dira bai Nafarroako mendi aldeko zenbait herritan eta bai Los Arcosen eta Erriberriin, non 12-14 hezkuntza-tartea mantentzen den Tafallako institututik 3 kilometrora badago ere. Hiru herri horietan Castejónen baino ikasle gutxiago dago. Argi dago, beraz, eskola mapa egiterakoan ez direla irizpide objektiboak erabili Erribera-

ko berezitasunak edo ikastetxeen dentsitatea kontuan hartzeko. Beheko Erriberak 68.000 biztanle ditu, eta 12-16 hezkuntza-tarterako bost ikastetxe ditu; Erdiko Erriberak, berriz, 50.000 biztanle ditu, eta 12-16 hezkuntza-tarterako zortzi ikastetxe dauzka.

Castejóngo ikasleak Tuterara joan beharrean daude; ikasleek egunero joan behar izaten dute N-232 errepide zalantzarik gabe arriskutsutik –Estatuko dentsitate handieneko errepidea da–. Bitartean, Castejónen leku egoki bat dago DBHko, Sagrados Corazones kongregazioarena, non arazorik batere gabe DBHko lehen zikloa irakatsi baita, organikoki Tuterako "Benjamín de Tudela" BHIaren menpe; ikastetxe horretako hezkuntzaren kalitatea, gainera, oso ona da, gainerako ikastetxeekin alderatuta.

Hezkuntza komunitatean eta Castejóngo alkatetzan arrazoi handiak daude 12-14 hezkuntza-tartea herrian bertan mantendu nahi izateko: Castejóngo eraikin batean DBHko bigarren mailako 38 ikasle daude une honetan, eta 2000/2001 ikas-turterako DBHko lehen mailan matrikulaturiko 29ak hartzeko lekua du, eta hori bezala DBHko hirugarren eta laugarren mailako ikasleak ere hartzeko moduan dago, arrisku handiko 36 kilometroko ibilbidea saihesteko –kontuan hartzekoa da goizeko 7etan ateratzen direla ikasleak herritik eta arratsaldeko 4ak aldera itzultzen direla, eta 12 urte besterik ez duten ikasleak daudela–; horrela ibiltzeak ondorio pertsonal handiak ditu ikasleentzat, neke fisikoaz eta adin horretarako desegokiak diren elikatzeko ohiturez gainera. Bestalde, egun dagoen hezkuntza kalitateari eusteak berekin dakar familia-ikastetxea binomioa osatzen duen hezkuntza inguruneak elkarrengandik hurbil egon behar izatea. Egun, gainera LOGSEK ezarritako eskola ordutegia (goiz eta arratsaldekoa) ematen ari da Castejónen, eta Tuterako masifikazioa ez duen ikastetxe batean. Horrek guztiak Castejóngo komunitateak mantendu nahi duen hezkuntza kalitatea osa dezake nahiz desegin dezake, eta, gainera, ikasleak Tuterara eramanez baino kostu txikiagoarekin.

Bestalde, haur eta lehen hezkuntzako 2. zikloa hartzen duen Castejóngo Dos de Mayo ikastetxe publikoko lekuarekin arazo endemiko bat dago, 1995etik ezagutzen dena eta ordutik konpontzeko eskatu izan dena. 1998an, udalak txosten tekniko



bat igorri zuen ikastetxea zabal zezaten eskatze-ko, baina Departamentuak ez zuen erantzunik eman. 10 ikasgeletarako hamabi talde daude, eta informatika, ingelesa, ikus-entzunezkoak, tutoretzak eta abar emateko berariazko aretorik ez dago; hori dela eta, beste leku batzuk erabiltzen ari dira eskolak emateko: biltegia, sukaldea eta botikina. Duela zenbait urte bizi den leku eza endemikoa larriagotu egingen da haur hezkuntzako 1. zikloko beste 24 ikasle Dos de Mayo ikastetxean sartzen direnean.

Zenbait arrazoi badaude ikastetxea zabaltzeko obrei ekiteko, horrek egungo ikasgelen kopurua murriztea ekarri gabe. Azken urte hauetan mantentzen ari den ratio bat dago, 2001/2002 ikasturterako berraztertu beharko litzatekeena, familia gehiago etorriko baitira orduan. Castejón herria familia horiek herritik joanen diren beldur da, ikusirik seme-alabentzako eskolaren gutxieneko kalitatea ez dela eskaintzen ari, eta hori hasia da gertatzen lehen Castejónen bizi eta orain handik alde egin duten familia batzuekin. Ihes egite horrek beste kalte bat ere badakar: herritik kanpora joaten direnek lehen bertan egiten zuten eguneroko kontsumo familiarra kanpoan egingen dute aurrerantzean.

Bestalde, hezkuntzaren kalitateari eustea da gure kezka, ez bakarrik horretarako leku egokiei dagokionez, baizik eta baita ere bikoizketak egiteari dagokionez eta ikasleen hezkuntza arretari eusteari dagokionez ere. Une honetan, Dos de

Mayo Ikastetxe Publikoak hezkuntza premia bereziak behar dituzten 16 ikasle dauzka, eta horietako batzuei ikastetxeko sukaldean ematen zaie eskola.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2000/2001 ikasturterako Castejónko Dos de Mayo Ikastetxe Publikoa zabal dezan, hezkuntza komunitateak eta Castejónko Udalak aurkeztutako proiektuari jarraituz, izan ere ikasgela batzuk zabalago egiteko ez daitezten beste batzuk txikiago egin eta ikastetxeko beste leku batzuk ken.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du DBHko lehen zikloko (1. eta 2. maila) ikasleen hezkuntza arreta Castejónen mantentzeko, eta etorkizun hurbilean herrian aurreikusi den industri-garapenari begira DBHko bigarren zikloa Castejónen jartzen has dadin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Dos de Mayo ikastetxe publikoko ikasleen hezkuntza beharren arabera irakasleen plantillari eta bikoizketei euts diezaien, egungo eta etorkizuneko beharrei aurre egiteko moduko kalitatezko arreta eskaintzeko.

Iruñean, 2000ko ekainaren 12an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Endarlatsa-Bera errepede-tarteko obrak egin ditzan**

### *FORU PARLAMENTARI JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE JAUNAK AURKEZTUA*

Foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Endarlatsa-Bera errepede-tarteko obrak egin ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaikiak baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**MOZIOAREN EDUKIA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoari jarraituz, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida eta bozka dadin.

Nafarroako Parlamentuko Herrilan Batzordean egin zuen agerraldian, joan den 31n, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak adierazi zuen N-121-A errepideko Endarlatsa-Bera tartean ez duela zentzurik Endarlatsa-Behobia errepidea egiten ez den bitartean, Iruneraino iristeko.

Halako adierazpenek sorrarazi dioten kezka adierazi nahi du parlamentari honek, Endarlatsa-Bera errepide-tarteko obrak atzeratzea eta egun dauden zirkulazio arazoak areagotzea ekar baitezakete. Kontuan harturik tarte hori hobetzeko

aurreikuspena Nafarroako Parlamentuaren Herrilan eta Azpiegitura Batzordeak 1997ko abenduaren 2an 1998-2005 urteetarako onetsitako Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzailean jasota dagoela, beharrezko ikusten du, kontseilariak eginitako adierazpen horiek direla eta, Parlamentuaren Osoko Bilkurak ondoko erabaki proposamena onestea:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du berehalak has dadin N-121-A errepideko Endarlatsa-Bera tarteko obratan, Gipuzkoa aldeko tarteari buruz Gipuzkoako Aldundiarekin izaten ari den elkarrizketen emaitzak (onak izan daitezzen nahi dugu) zein diren begiratu gabe.

Iruñean, 2000ko ekainaren 13an

Foru parlamentaria: José Manuel Goikoetxea Askorbe

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publiko, erakunde autonomo eta bestelako enteen kasu ezberdinei buruzko erreferentzia marko bat prestatu dezan**

### *NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publiko, erakunde autonomo eta bestelako enteen kasu ezberdinei buruzko erreferentzia marko bat prestatu dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketak Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrús

**MOZIOAREN EDUKIA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Nafarroako Kontuen Ganbarak aditzera eman du Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoen arautze eza, eta "erakunde autonomiei, enpresa publikoei eta zuzenbide publikoko enteei buruzko" bere txostenean azaldu du Estatuan LOFAGE izenaz ezagutzen den legeaz arautu direla halako enpresak, eta Nafarroan, ordea, gaur arte, ez dela halakorik egin.

Nafarroak eskumen eskusiboak ditu alor hori arautzeko, eta muga bakarra du arautze horrek bermatu beharra daukala herritar guztiei tratamendu bera emanen zaiela administrazio publikoetan. Ahalmen hori eduki arren, Nafarroa ez da sekula eskumen horretaz baliatu eta ez da Nafarroako Gobernuaren menpeko ente publiko ezberdinetako araubide juridikoa arautzeko gauza izan. Araurik ez izatearen ondorioz, Estatuko araua aplikatu

beharrean gaude Nafarroan, hemengo arauen osagarri.

Nafarroan ez dago Entitateen Erregistro Orokorrik, eta horrek eragozten du, Kontuen Ganbararen esanetan, "zehatz-mehatz ezagutzea dau den entitateak, ente izenaren menpe biltzen diren entitate batzuk zehazki definitzeko zailtasun juridikoarengatik ere..."

Gai publikoen kudeaketarako figura ezberdinak etengabe sortzea errealitate bat da, eta horretarako eragingarritasun eta deszentralizazio irizpideak erabiltzen dira; halaber, halako kontrol falta bat gertatzen da administrazioaren arloan, eta hori ez da on gertatzen ustelkeriak asko jo zuen sistema baterako. Ez dago auto-antolaketako eredu bat guztiz egokitzat jo daitekeenik; administrazioak bere jardueretan aritzeko bere buruari emanen dizkion tresnak arautzeko marko arautailerik ere ez dago.

Enpresa horien kontratazioaren gaineko kontrol gutxi dago; hala ere, kasu gehienetan, Kontratuari buruzko Foru Legearen arabera kontratatzen da edo Kontratuari buruzko Foru Legeari egokitutako pleguak erabiltzen dira.

Lan harremanak arautuko duen markorik ere ez dago, eta bidegabeko aldeak daude enpresen artean; beraz, 35 orduko lanaldia lehentasunezko helburu gisa arautuko duen hitzarmen autonomiko bat izateak segurtasuna emanen die langileei eta lasaitasuna patronal "berezi" horri.

Egoera horren aurrean, Kontuen Ganbarak gomendatzen du "planteatzen ahal diren kasu ezberdinetan erreferentzia gisa balioko duen arau marko bat ezarri behar dela, eta ahal den neurrian, kudeaketaren alderdi ezberdinak homogeneizatu behar ditu, esate baterako administrazio-kontseiluetako osaketa, enkarguak egiteko modua eta aplikatu beharreko prezioak".

Bestalde, Kontuen Ganbarak proposatu izan du enpresek Administrazioarekin dituzten harremanak arautzea, batez ere entitate bakoitzak egin behar duen jarduera motari dagokionez, gai horretan nahasbiderik dagoenean.

Kontuen Ganbararen adierazpen horien aurrean, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko erabakia aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean presta dezan eta Biltzar honetan aurkez dezan Nafarroako Gobernuaren menpe egon daitezkeen enpresa publikoetan, erakunde autonomoetan eta bestelako enteetan aplikatu beharreko arauteria. Halaber, kudeaketaren alderdi ezberdinak homogeneizatu beharko dira, hala nola administrazio kontseiluen osaketa, enkarguak egiteko modua eta aplikatzekoak diren prezioak. Entitateen Erregistro Orokor bat ere aurreikusi beharko da.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa publikoek, erakunde autonomoek eta enteek Administrazioarekin eduki behar duten harremanak arau ditzan, batez ere entitate bakoitzak egin behar duen jarduera motari dagokionez, gai horretan nahasbiderik dagoenean.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa publikoetan ordezkariak duten sindikatuarekin hizketan has dadin langile horiek hitzarmen autonomiko bat izan dezan, dauzkaten lan baldintzak hobetzeko eta 35 orduko lanaldia ezartzeko, besteak beste.

Iruñean, 2000ko ekainaren 15ean

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

## **Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da aldi baterako lan enpresak deusezta ditzan**

### **IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da aldi baterako lan enpresak deusezta ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariet zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **MOZIOAREN EDUKIA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Nafarroako Foru Komunitateko lan merkatuaren behin-behinekotasun tasak % 25 gainditzen du, eta gure lan merkatuaren faktore negatiboenetako bat da. Behin-behinekotasun horrek, gutxienez, Europako Batasuneko batez besteko tasa bikoizten du, eta hazkunde ekonomikoaren eta enplegu sortzearen erritmo garrantzitsua gorabehera, oso jokaera negatiboa dauka.

Behin-behinekotasun horrek gazteengan du eragin berezia, eta horrek ondorio oso negatiboak dauzka haien bizi kalitatean eta etorkizunerako igurikapenetan, baina, horretaz gainera, ondorio penagarri eta deigarriak dauzka lan istripuen tasa ikaragarrietan.

Nahiz eta agente sozialek eta gobernuek 1997an adostutako lan erreformak bultzada eman kontratu mugagabeei, 1998an, sinatutako kontratuen % 40 hiru hilabete edo denbora gutxiagokoak izan ziren, eta behin-behineko kontratuak kontratu guztien % 90 ziren.

Egoera honek eragin larria dauka lan istripuetan dauzkagun tasa handietan; ranking horretan

ere gure inguru ekonomikoko herrialdeen buruan gaude, eta, are larriagoa dena, azken urte hauetako bilakaera positiboa izan gabe. Horrela, bada, 1999an, 28.000 lan istripu baino gehiago izan ziren Nafarroan; horietatik 195 larriak izan ziren eta 30 heriotz istripuak.

Nafarroako kontratazioen behin-behinekotasuna % 25ekoa bada, aldi berean lan istripuen erdiak baino gehiagok aldi baterako langileengan du eragina; horrek argi eta garbi islatzen du behin-behinekotasunak lan istripuetan duen eragina. Gainera, behin-behinekotasunaren batez bestekoaren oso gaitetik dauden sektoreetan, istripuen indizeek gora egiten dute; esate baterako, Nafarroan, 1999an, eraikuntza alorrean lanean ari direnetatik % 22 izan zuten istripuren bat (horietatik 38 istripu larriak eta 6 heriotz istripuak).

Argi dago, horrenbestez, beharrezkoa dela laneko behin-behinekotasun maila jaistea, lan istripuen kopurua eta haien ondorio pertsonal eta ekonomiko ikaragarriak nabarmen gutxitzea. Eta bide horretan, lan merkatua arautu eta hartan esku-hartzeko eredu batean jardun beharra dago: aldi baterako lan enpresak (ABLEak); enpresa horien jarduerak kalte larria egiten du bere langileen lan baldintzetan, eta kaltetutako lan baldintza horien artean nabarmena da lan segurtasunarena.

Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak berak agerian jarri du ABLEek eragin bereziki zuzena dutela lan istripuen tasetan; horrenbestez, zerbitzuen alorrean gero eta istripu gehiago izateko arrazoietakoa bat sektore horretan ABLEek duten garrantzia izan daiteke.

Nafarroan, 1999an, ABLEek 40.000 eskurajartze-kontratu baino gehiago egin zituzten, hau da, kontratazio guztien % 24. Kontratu horien % 50ek hogeita hamar eguneko edo gutxiagoko iraupena dute.

Behin-behinekotasunaren, istripuak izatearen eta ABLEen jardueraren artean zalantzarik gabe dagoen lotura dela-eta, gobernu zentralak zenbait neurri partzial hartu ditu; esate baterako debekatzeari ABLEek kontratuak egin ahal izatea arrisku berezia dagoen lanpostuetan, eta horren barnean sartzen dituzte eraikuntza alorreko zenbait lan. Horiek arazoari konponbidea emateko balio ez duten adabakiak baizik ez dira, ez baitute eragin

nahikoa behin-behinekotasuna murriztu eta kontratazio modu batzuk deuseztatzeko.

Horrenbestez, IUN-NEB Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak gobernu zentrala premiatzen du Aldi Baterako Lan Enpresak ken ditzan, haien jarduerak lan eskubideei kalte larria egiten dielako, langileek lanean segurtasuna izateko duten eskubidea barne.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako administrazio publikoak (Nafarroako Gobernua, toki entitateak, mankomunitateak), haien erakunde autonomoak edo menpekoak eta enpresa publikoak premiatzen ditu Aldi Baterako Lan Enpresetako zerbitzuak erabil ez ditzaten, uste baitu haien jarduerak kalte larria egiten diela lan eskubideei, langileek lanean segurtasuna izateko duten eskubidea barne.

Iruñean, 2000ko ekainaren 15ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Urte jakin batzuetan udal, kontzeju eta mankomunitateei eginiko transferentzia arruntetako eta kapital transferentzietako diru-zenbatekoei buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 19an egindako bilkuran, foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak urte jakin batzuetan udal, kontzeju eta mankomunitateei eginiko transferentzia arruntetako eta kapital transferentzietako diru-zenbatekoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**GALDERAREN EDUKIA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe

be jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

1. Zein dira, banan-banan azalduta toki entitateen eta Nafarroako Gobernuaren departamentuen arabera, 1996, 1997, 1998 eta 1999 urteetan Nafarroako udal, kontzeju eta mankomunitateei eginiko transferentzia arruntetako eta kapital transferentzietako diru-zenbatekoak?

2. 1999. urteari buruzko diru-zenbatekoak oraindik ere prest ez badaude, aurreko guztiak ezagutu nahi ditugu, eta 1999. urtekoak ezagutzen diren unean guri igortzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 13an.

Foru parlamentaria: José Manuel Goikoetxea Askorbe

---

**N-1 autobiarene irteera batean, Olazti parean, gertaturiko istripuei buruzko galdera**

*FORU PARLAMENTARI JOSE MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 19an egindako bilkuran, foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak N-1 autobiarene irteera batean, Olazti parean, gertaturiko istripuei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**GALDERAREN EDUKIA**

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion.

1. Zenbat zirkulazio istripu gertatu dira N-1 autobiarren Olaztiko irteeran, Iruñeko norabidean, "Cementos Portland"ekoa izenez ezagutzen den eta 396 eta 397 kilometro puntuen artean dagoen horretan?

2. Zein izan da istripu horien larria?

3. Zein izan da istripuen arrazoiei buruz egin den azterketaren emaitza?

4. Zein neurri hartu dira, zein egunetan eta zein izan dira emaitzak?

5. Halakorik egin ez bada, zein neurri hartuko dira eta noiz?

Iruñean, 2000ko ekainaren 13an.

Foru parlamentaria: José Manuel Goikoetxea Askorbe

**Lurraldearen antolamendurako arauetarako buruzko galdera****AHOZKO GALDERA BIHURTUA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 19an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak lurraldearen antolamendurako arauetarako buruz egindako galdera ahoz erantzuteko galdera bihurtzea erabaki zuen. Galdera 2000ko apirilaren 26ko 35 zenbaki-

ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren ekonomi eta finantza erregelamendua**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko maiatzaren 22an egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailatza eta Ekonomi Gaietarako Zerbitzuak proposaturiko Nafarroako Parlamentuaren ekonomi eta finantza erregelamendua ikusita eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2000ko maiatzaren 15ean onetsiriko Erabakia –Erabaki horren bidez erregelamendua hasiera batez onetsi zen–, Zerbitzu Juridikoek 2000ko maiatzaren 19an egindako proposamena eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 12.5 idatz-zatian sarturiko aldaketak kontuan harturik, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatuarekin bat, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren ekonomi eta finantza erregelamendua onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko maiatzaren 24an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **Nafarroako Parlamentuaren ekonomi eta finantza erregelamendua**

### **I. KAPITULUA**

#### **Xedapen Orokorrak**

##### **1. artikulua.**

1. Nafarroako Parlamentuaren izaera eta antolaketarekin bat, dirusarrera eta gastuen izaera ekonomikoa kontuan hartuta prestatuko dira haren aurrekontuak.

Ondorio horretarako, kapitulu, artikulua, kontzeptu, azpikontzeptu eta kontusailetan sailkatuko dira gastuak eta dirusarrerak.

2. Nafarroako Parlamentua kontabilitate publikoaren araubidearen menpe dago, artikulua hauen eta etorkizunean eman daitezkeenekin bat. Biltzarreko Kontabilitate Plana 1994ko abenduaren

12an Mahaiak hartutako erabakiaren bidez onetsi zen.

3. Aurrekontuetan onetsitako kredituak aurrekontu-kontusailetan egituratuko dira, eta kontusailok kontzeptu ekonomikoaren mailan (5 zenbaki) definituko dira gutxienez.

Kredituak, horien aldaketak eta gastua burutzeko eragiketak kontabilitatearen arabera jasotzeko, aurreko lerroaldean definitu den aurrekontu-kontusaila erabiliko da; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izanen kreditu jakin batzuetan kontabilitate jarraipen zehatzagoa egiteko.

4. Kapitulu, artikulua, kontzeptu eta azpikontzeptuen egitura irekia da, beraz, eta hala behar izanez gero, egokitzen jotzen direnak sortu ahalko dira ezohiko gisa.

**2. artikulua.** Aurrekontuak prestatu eta onesteko prozedura.

1. Parlamentuko Mahaiak ekitaldiko aurrekontuak egiteko jarraibide ekonomiko eta teknikoak zehaztu eta onetsiko ditu.

2. Kontu-hartzailatza eta Ekonomi Gaietarako Zerbitzuko buruak prestatuko du aurrekontuen aurreproiektuaren aurrerakina, eta zerbitziburuei igorriko die, Mahaiak onetsitako jarraibideei lotuz aurrekontu-beharrizanak zehatz ditzaten.

3. Kontu-hartzailatza eta Ekonomi Gaietarako Zerbitzuak agiri bakar batean bilduko ditu aurreproiektuak, eta idazkari nagusiari igorriko dio, azalpen oroit-idazkiarekin batera, urte bakoitzeko irailaren 10a baino lehen.

4. Aurrekontuen aurreproiektua Nafarroako Parlamentuko Mahaiak onetsiko du, eta Eledunen Batzarrari igorriko dio, hark proiektua onets dezan.

5. Ekitaldi bakoitzeko urriaren 1a baino lehen, Lehendakariak Nafarroako Gobernuo Ekonomi eta Ogasun Departamentura igorriko du Nafarroako Parlamentuaren Aurrekontuen Proiektua, Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sar dezaten.



**3. artikulua.** Kredituen lotura juridikoa.

1. Gastuetarako kredituek izaera mugatzaile eta loteslea dute kopuruari eta helburuari dagokien. Muga horren betetzea kapitulu ekonomiko (digitu bat) lotura juridikoaren mailan emango da. Lotura horretatik salbuetsita daude:

– Langileen gastuak, 10, 11, 12 eta 13. artikulua. Kasu horretan lotura artikulua mailakoa izanen da.

2. Betiere, gastuen egoera-orrietan azaltzen duten desagregazio-mailarekiko izaera loteslea izanen dute ondoko kredituek:

a) Ondasunen eta zerbitzuen gastu arruntetan, ondokoak: “energia elektrikoa”, “jantziak”, “telefono deiak”, “posta bidezko komunikazioak”, “garraioak” eta “protokolo eta ordezkartzako atentzioak”.

b) Finantziario atxikiko proiektuetako inbertsio errealak.

c) Gehigarritzat jotzen direnak.

**4. artikulua.** Lotura juridikoaren mailaren ondorioak

Egin nahi diren gastuen zenbatekoa aurrekontu kontusailaren kontsignazioaren gainetik bada, aurreko oinarrian aipatu diren lotura mailak gainditu gabe, dagokion lotura esparruko kontusailen artean behar diren aurrekontu-doiketak egiten dira, aurrekontu-aldaketen araubide orokorri lotu gabe.

## II. KAPITULUA

### Aurrekontu aldaketak

**5. artikulua.**

1. Gasturen bat egin behar bada eta horretarako kontsignazio nahikoa eta egokia ez badago eta lotura juridikoaren maila gainditzen badu, dagokion aurrekontu-aldaketari buruzko espedientea izapidatuko da, hala ezartzen baitu 4. artikulua.

2. Aurrekontu-aldaketa orok behar du justifikatzeko proposamen arrazoitua, Zerbitzuak izenpetua, aurrekontua onartzen den unean aurreikusten diren beharrak asebetetzeari noraino eragiten dion neurtuko duena.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak aurrekontu-aldaketari onespina eman baino lehen, Kontu-hartzailtzak aldeko txostena egiten du.

**6. artikulua.** Aparteko kredituak eta osagarriak

Ekitaldian zehar egin behar diren aurrekontu-aldaketak ezin badira kreditu gehikuntza, transferentzia edo sorkuntzaren bitartez gauzatu, Biltza-

reko Mahaiak Nafarroako Gobernuari proposatu-ko dio aparteko kreditua edo kreditu-osagarria, zer egokitzen den, emateko Foru Lege proiektua onetsi dezan.

**7. artikulua.** Transferentziak, gehikuntzak eta sorkuntzak

1. Kreditu transferentzien bitartez, eta aurrekontuen zenbatekoa aldatu gabe, aurrekontu kontusail baten guztizko edo zatiko kopurua egotzi egiten zaio lotura juridiko maila ezberdina duen beste kontusail bati.

Ohiko gastuen eta kapital gastuen arteko transferentzia bakarrik egin ahal izanen da, behar bezala justifikatutako bat-bateko gorabeherak medio, gutxituko den kontusailari hasieran jarri zitzaizkion beharrian edo helburuak betetzea ezinezko edo desegoki bihurtzen baldin bada.

2. Legeria orokorraren arabera gehigarritzat jotzen direnez gain, ondokoek ere izanen dute izaera hori, aitortzen diren obligazioen muga bitartez:

a) Foru parlamentariei diru-sariak ordaintzera bideratuak.

b) Parlamentuko taldeei diru-sariak ordaintzera bideratuak.

Gehikuntza Nafarroako Aurrekontu Orokoretatik ateratako fondoekin finantzatzeko, dagokion eskaria egiten zaio Nafarroako Gobernuko Ekonomi eta Ogasun Departamentuari beharrezko xedapenak har ditzan horretarako.

3. Legedia orokorrak aurreikusitako eragiketez gain, aurrekontuak oharmandakoez gain eskuratzen diren dirusarrerek ere kredituak sortzen ahaliko dituzte.

**8. artikulua.** Urte anitzeko gastuak

1. Urte anitzeko gastuak egin eta baimenduko dira aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako baimendutako kredituen arabera.

2. Salbuespen izanen dira errentamendu eta laguntza kontratuek eragindako gastuak, baldin eta horien indarraldia urte bete baino gehiagokoa ez bada eta bi aurrekontu-ekitaldira eragiten badie.

**9. artikulua.** Kredituak gaineratzea.

1. Hurrengo ondorengo ekitaldiko aurrekontuan kredituak gaineratzeko, Kontu-hartzailtza eta Ekonomi Gaietarako Zerbitzuak gaineragarri diren kredituen saldoen egoera-orria zein kreditua gaineratzeko proposamen arrazoitua prestatuko ditu. Horiekin batera, jarduketa ekitaldian zehar

beteko dela ziurtatzen duten agiriak gaineratuko dira.

2. Espedientea Parlamentuko Mahaiari igorriko zaio, hark ekitaldiko kontu eta kitapenarekin batera onets dezan, eta horrek besterik gabe ekarriko du gaineratu diren kredituak finantzatzeko beharrezkoak diren fondoan atxikipena.

3. Kredituen gaineratzea eta horiek finantzatzeko fondoan atxikipena 8/1988 Foru Legeko lehen xedapen gehigarriko 3. zenbakiak ezartzen duenari jarraikiz eginen dira.

#### **10. artikulua.** Kreditu orokorra.

1. Ekitaldian zehar sor litezkeen eta aurrekontu-kontsignazio nahikoa ez duten beharrei aurre egin ahal izateko, kreditu orokor bat gauzatu ahal da, baldin eta gastuen-egoeraren ehuneko bat baino gehiagokoa ez bada. Kreditu horren aplikazioa kasuan kasuko aurrekontu-kontusailei transferentzia egin eta gero eginen da, atenditu beharreko beharrezko ekonomikoen izaeraren arabera.

2. Transferentzia-proposamenak justifikatu beharko du ezinezkoa dela beharrezko horiek hasieran baimendu diren kredituekin finantzatzea, edo, kasua hori bada, kapitulu honetan arautzen diren aurrekontu-aldaketei buruzko ohiko espedienteen bidez atenditzea teknikoki zaila dela edo ez dela egokia.

### **III. KAPITULUA** **Gastuaren betetzea**

#### **1. Sekzioa** **Xedapen Orokorrak**

##### **11. artikulua.**

1. Gastuen aurrekontuaren betetzea ondorengo fase hauek bere baitan hartuko dituen espedientean gauzatuko da:

- a) Gastuaren baimena
- b) Gastua erabiltzea
- c) Obligazioaren aitortpena
- d) Ordainketa agintzea eta ordainketa bera.

2. Betetze espedientea zerbitzuburuak egiten duen gastu-proposamenarekin hasiko da; bertan, zer-nolako gastua egin nahi den azalduko da, beharrezkoa dela arrazoituko da, gutxi gora behera edo zehatz zenbat joko duen esanzen da eta bere iritzia arabera zer aurrekontu-kontusailari egotzi behar zaion adieraziko da. Gastua egiteko ekimena Mahaiarena, Lehendakaritzarena edo Legelari Nagusiarena baldin bada, espedientea

abiatzeko agindu edo proposamena gai horren gaineko eskumena duen zerbitzuburuari igorriko zaio, hark bete dezan.

3. Lehendakaritzaren eta foru parlamentarien bidaia ofizial, protokolo eta gastu sozialen atentzioari eskainitako aurrekontu-kontusailak betetzeko nahikoa izanen da horretarako Erabaki edo Ebazpena, baldin eta aurrekontu-kontsignazio nahiko badago.

#### **12. artikulua.**

1. Parlamentuko Mahaia da aurreko artikuluko 1. idatz-zatiko a) eta b) letren –biak barne– arteko faseetako gastua betetzeko erabakiak hartzeko eskumena duena, hurrengo idatz-zatian xedatutakoa kendu gabe.

2. Parlamentuko Mahaiak eskuordetutako eskurantzatzat joko dira ondokoak:

a) Lehendakariari eskuordetua: material inbertitagarria, zerbitzuak eta ondasun arruntak erosteko agindua ematea, baldin eta gastua 500.001 eta 2.000.000 pezeta bitartekoa bada.

Gastua egiteko aginduak ondoko faseak hartzen ditu: baimena eta eskura izatea edo konpromisoa.

b) Biltzarreko Legelari Nagusiari eskuordetua: bere kargura dauden zerbitzuen funtzionamendurako beharrezkoak diren kontratuak sinatzea eta gastuak baimentzea, baldin eta gastua 500.000 pezetakoa baino gehiagokoa ez bada.

3. Artikulu honetan biltzen diren eskuordetueen kariaz ematen diren ebazpenetan espresuki jasoko da inguruabar hori. Ebazpen horiek Mahaiak emandakotzat joko dira ondorio guztietarako, eta horien aurka, aukeran, berraztertze errekurtsoa jarri ahal da, Mahaiari zuzendua.

4. Ordainketak Parlamentuko Lehendakariak agintzen ditu. Ordainketaren gauzatze materialak –dela eskudiruz, dela taloi edo banku-transferentziaren bidez– kontu-hartzailearen eta Lehendakariaren sinadurak beharko ditu, edo hark eskuordetutako Mahaiko kidearena.

5. Arestiko idatz-zatietan jasotzen diren eskuordetueen kariaz ematen diren ebazpenen berri emanen zaio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, behar adinako maiztasunarekin.

#### **13. artikulua.**

Baimena, erabiltzea, obligazioa ezagutzea eta ordainketa agintzea, lau fase hauek, egintza bakar batean biltzen dira, ADOP delako agiriaren tramitazioari bidea emango diona, behin gastua justifikatu eta gero, ondorengo kasu hauetan:

– Justifikatu beharreko ordainketa izaerarekin igorpendutako fondoak.

– Kutxa finkoko eta kutxa eskuordetuko aurre-rakinak.

Fondo horiek ez dute aurrekontu-izaerarik izanen, eta gastua egin eta justifikatu ondotik egingen da horien kontabilitate-egozpena. Emandako zenbatekoak diruzaintzako erregistro osagarrietan islatuko dira, harik eta kontuak eman arte.

#### **14. artikulua.**

Ekitaldiaren hasieran Parlamentuak aurretik hartu duen legezko konpromisoari erantzuten dion edozein gastu baimendu eta erabiliko da, eta horretarako dagokion “A” agiria kontabilizatu eta bideratuko da. Espezifikoki honako hauei aplikatuko zaie:

- Langileen gastuak, 10, 11, 12, 13 eta 16 artikulua.
- Errentamenduak, 20. artikulua.
- Konponketak, kontserbazioa eta mantentzea, 21. artikulua.
- Bulegoko materiala, 220 kontzeptua.
- Komunikazioak, 222 kontzeptua.
- Garraio gastuak, 223 kontzeptua.
- Energia elektrikoa, 228 kontzeptua.
- Parlamentarien diru-sariak, 23. artikulua.
- Parlamentuko taldeen diru-sariak, 48. artikulua.
- Liburuak eta bestelako argitalpenak erostea, 608 kontzeptua.

### **2. Sekzioa Langileen gastuak**

#### **15. artikulua.**

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak plantilla onartzeak eta lanpostu-zerrenda onartzeak esan nahi du oinarritzko ordainketa zein ordainketa osagarrien ondoriozko gastuak baimentzen direla eta fondo horiek erabil daitezkeela, eta, Lehendakari-tzaren, Lehendakari-tzako kabinetearen, goi karguen zein aldi baterako langileen kasuan, Aurrekontuan finkatu diren zenbatekoak baimendu direla eta erabil daitezkeela.

Ondoren, “A” agiria tramitatuko da, ekitaldiaren hasieran benetan bete diren lanpostuei dagokien zenbatekoarengatik. Zenbateko hori aldatzen bada –dela funtzionarioak izendatzen direlako, dela langileak kontratatzen direlako, dela hasieran

finkatutako ordainketak gehitu direlako–, gastuaren baimena eta erabilgarritasuna onartzen dela adierazi beharko da, “A” de “AD” agiri osagarri bat eginez.

2. Gizarte kuotei eta aseguruaren sariei dagozkien gastuen betetzea aurreko idatz-zatian aurreikusi den modu berean gauzatuko da, eta “A” agiria egingen da aurreikusitako kotizazioen zenbateko bera jasoz.

#### **16. artikulua.**

Hileko nominak, Kontu-hartzailatza eta Ekonomi Gaietarako Zerbitzuak eginda, langileen ordainketak justifikatzen ditu eta Lehendakariak onetsiko du, Idazkari Nagusiak zerrendako langileek aipatzen diren zerbitzuak egin dituztela adierazten duen diligenza egin ondotik.

### **3. Sekzioa**

#### **2.000.000 pezeta baino gutxiago jotzen duten hornidurak, laguntza tekniko eta konponketa txikiak kontratatzea**

#### **17. artikulua.**

1. 2.000.000 pezeta baino gutxiago jotzen duten hornidura, laguntza tekniko eta konponketa txikien kontratuak espediente laburbilduaren bidez bideratuko dira, eta ondoren adierazten diren tramiteak baizik ez dituzte bete beharko:

- a) Zerbitzuak egindako proposamen arrazoi-tua, kontratuaren gaia betetzearen bidez asebeteko diren beharrezanez buruzkoa.
- b) Oinarritzko baldintza tekniko eta administrati-boen plegua.
- c) Kontu-hartzailatzaren txostena.
- d) Gutxienez hiru eskaintza eskatzea, eta ezinezkoa baldin bada, arrazoitu egin beharko da.
- e) Esleipena, berau justifikatzen duen txostena egin eta gero.
- f) Faktura, kontratu-agiriaren betebeharra beteko duena.

500.000 pezeta baino gutxiagoko aurrekontua duten kontratuaren eskatzen ahalko den agiri bakarra faktura izanen da.

500.000 eta 2.000.000 pezeta bitarteko aurrekontua duten kontratuak Nafarroako Administrazio Publikoen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 98. artikuluan ezarritakoari jarraikiz egingen dira, baldin eta oinarrietan bermealdia ezartzen bada.

2. Espediente laburbildu horien tramitazio aruntak bi fase izanen ditu: bata gastua egiteko

baimena eskatzea –1. idatz-zatiko a), b) eta c) letrak–, eta bestea esleipena –d) eta e) letrak.

Salbuespen gisa, 1. idatz-zatiko a) eta e) letretako jarduketak fase bakar batean egin ahalko dira, baldin eta espedientean hala egitea komeni dela adierazten duten inguruabarrak biltzen badira. Hala bada, Zerbitzuaren proposamen-txostenak hori hala dela justifikatu beharko du.

3. Kontratuaren gaiaren zenbatekoa ez da sekula zatituko edo bananduko oinarri honetan aipatzen diren zenbatekoetara iristeko edo horiek gutxiagotzeko xedez.

4. Oinarri honetan aipatzen diren zenbatekoak gainditzen dituzten kontratuak legeria aplikagarriaren ezartzen den prozeduraren bidez ebartziko dira.

5. Artikulu honetan ezartzen diren prozedurak eta zenbatekoak une bakoitzean Foru Komunitateko Administrazioarentzat ezartzen direnei egokitu zaizkie.

#### **18. artikulua.**

1. Sekzio honetan sartzen diren eta 500.000 pezeta baino gutxiagoko aurrekontua duten kontratuen kasuan, gastua baimentzeko proposamena baizik ez da tramitatuko. Kontu-hartzailetzak kontabilitate dokumentua fiskalizatuko du.

2. Helbideratze kasuetan –telefono deietarako, energia elektrikorako eta ur-hornidurarako soilik aurreikusten da helbideratzea–, hasierako baimena onetsi ondok kontu-hartzailetzak bankuko kar-guak egiaztatu eta kontabilitatean jasoko ditu.

3. Gainerako kasuetan, kontu-hartzailetzak gastuaren betetzearen fase guztiak fiskalizatuko ditu, erregelamenduaren arabera prozedurarekin bat.

#### **19. artikulua.**

Laguntza teknikoko kontratuen luzapenak ondoko tramiteak betez egingen dira:

a) Zerbitzuburuak beharizanari eta komenigarritasunari buruz egindako proposamen arrazoi-tua.

b) Kreditu-ziurtagiria, Kontu-hartzailetzak emana.

c) Erabaki edo Ebazpena, luzapena baimentzeko, ala ez.

### **4. sekzioa**

#### **Hitzarmenak eta lankidetzak itunak**

##### **20. artikulua.**

Nafarroako Parlamentuak beste entitate publikoekin edo eta haien menpeko erakunde zein enprekin egingen dituen hitzarmenak eta lankidetzak itunak ondoren aipatzen den prozeduraren bidez tramitatuko dira:

a) Zerbitzuak arrazoituriko proposamena, hitzarmena beharrezkoa ote den azalduz.

b) Txosten juridikoa.

c) Kontu-hartzailetzaren txostena

d) Mahaiaren erabakia, hitzarmena edo ituna sinatzeko baimena ematen duena.

### **IV. KAPITULUA**

#### **Dirusarreraren aurrekontuaren betetzea**

##### **21. artikulua.**

Parlamentuak bere aurrekontuetan Nafarroako Aurrekontu Orokorren transferentzia gisa izendatuta dauzkan dotazioak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren organo eskudunak libratuko ditu hiruhilabeteka eta aurretik.

Horretarako, Mahaiak, hiruhilabeteko naturalaren lehen astean, transferentzia-dirusarrerara bezala urtean izendatuta daukanaren laurden bat ordain diezaiola eskatuko du, salbu eta beharizan handiagoak daudenetan.

##### **22. artikulua.**

Biltzarraren dirusarreraren nolakoa kontuan harturik, bere kudeaketa egintza bakarrean burutuko da, eta egintza horrek kontabilitate-idazpen bakarra sorraraziko du. Antolamenduari buruzko erregelamenduko 53. artikuluan ezarritakoarekin bat, kontabilitateko arrazoi hartzeak kontrol-egintza ordezkatzeko du.

### **V. KAPITULUA**

#### **Aurrekontuaren kitapena eta kontuen onarpena**

##### **23. artikulua.**

1. Ekitaldia ixtea eta Biltzarraren aurrekontuen kitapena, eskubideak eta obligazioak aitortzeari dagokionez, baita dirubilketa eta ordainketari dagokionez ere, urte naturaleko abenduaren 31n izanen da.

2. Salbuespen gisa, obligazioak aitortu ahalko dira, bai eta beharrezkoa bada ordainketa egiteko agindu ere, hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 20a

arte, hartzekodun bakoitzaren eskubideak justifikatzen dituzten agiriak aurkeztuz, baldin eta aurrekontuko ekitaldia bukatu aitzineko erosketak, obrak, zerbitzuak, prestazioak edo gastu orokorrak badira eta horretarako kredituen kargura egin badira. Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin beharko du aldez aurretik.

3. Urtarrilaren 25a baino lehen aurreko urteari dagokion ekitaldia ixteko eragiketa guztiek kontabilizatuta egon beharko dute.

#### **24. artikulua.**

1. Kontu-hartzailera eta Ekonomi Gaietarako Zerbitzuak kontuen aurreproiektua prestatuko du eta Idazkari Nagusiari aurkeztuko dio urte bakoitzeko martxoaren baino lehen. Gero, Biltzarreko Mahaiari igorriko zaio.

2. Aipatu aurreproiektua jaso ondoren, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Kontuen Ganbarari igorriko dio, hark aholku emateko urteko txostena egin dezan.

3. Eledunen Batzarrari dagokio Nafarroako Parlamentuaren Kontu Orokorrak onestea.

4. Eledunen Batzarrak Nafarroako Parlamentuaren Kontu Orokorrak onetsi ondoko hogeita hamar eguneko epean, Foru Komunitatearen Diruzaintza Orokorrari bueltatuko zaizkio obligazioak betetzeari atxikirik ez dauden fondoak.

#### **Xedapen gehigarria**

1. Erregelamendu honetan xedatutakoak ez du ukituko Nafarroako Parlamentuaren ekonomi eta finantza erregelamendua ezarri eta aldatzeko Mahaiak duen ahalmena.

2. Erregelamendu honetan biltzen ez diren kasuetan, Nafarroako Administrazio Publikoan kontratuak zein ogasun publikoa direla-eta aplikatzekoa den araudia aplikatuko da; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izanen Nafarroako Parlamentuak bere berezitasunei, langileen araubidetik zein bere izaera eta funtzioetatik eratortzen direnei, alegia, eusteko.

#### **Azken xedapena**

Erregelamendu honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hartuko du indarra.

## **Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa**

### **Izendapena**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko ekainaren 19an egindako bilkuran, besteak beste, ondoko erabakia hartu zuen:

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko gelazain-lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzekoa 2000ko apirilaren 10eko 44 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2000ko martxoaren 29ko 27 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara. Bada, oposizio-lehiaketa bukatu eta epai-mahai kalifikatzaileak eginiko izendapen proposamena, 2000ko ekainaren 15eko 50 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, zeindeialdiko 7.2. oinarrian ezarritakoa betez, ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuko funtzionario, gelazain Kidegokoa, izendatzea ondoko izangaia.

FADRIQUE GARDE, M<sup>a</sup> Isabel

**2.** Interesdunak hamar eguneko epea izanendu, izendapena jakinarazten zaionetik aitzina, lanpostuaren jabetza hartzeko.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 21ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefona* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--